

<i>Espedientea</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Ukitutako administrazioak</i>		<i>Kontzeptua</i>
24/2012	R14/2012	2012/10/29	Bizkaiko Foru Aldundia	Estatuko Administrazioa	Pertsona fisiko baten egoitza fiskala

R 14/2012 ebazpena
24/2012 espedientea.

Gasteizen, 2012ko urriaren 29an.

Carlos Palao Taboada presidente jaunak eta Isaac Merino Jara eta Javier Muguruza Arrese batzordekide jaunek osatutako Euskal Autonomia Erkidegoko Ekonomia Ituneko Arbitraje Batzordeak honakoa

ERABAKI DU

Estatuko Administrazioak Bizkaiko Foru Aldundiari honakoaren helbide fiskalari buruz planteatutako gatazka dela eta: IZEN-ABIZENAK (NAN: ----). Gatazka hori 24/2012 espediente zenbakiarekin izapidetzen ari da Arbitraje Batzorde honetan.

I. AURREKARIAK

1. Gatazka hau Zerga Administrazioaren Estatu Agentziak (ZAEA) planteatu zuen, bere zuzendari nagusiaren 2012ko ekainaren 6ko idazkiaren bitartez. Idazki horri ekainaren 7ko erregistro-sarrera eman zitzaion Arbitraje Batzordean.

Idazki horretan azaltzen da 2012ko martxoaren 6an, ZAEAk Euskadin duen Ordezkaritza Bereziak Bizkaiko Foru Aldundiari jakinarazi ziola, Ekonomia Ituneko 43. Bederatzi artikuluari jarraituz, IZEN-ABIZENAK delakoaren helbide fiskala aldatzeko proposamena, Bizkaiko HELBIDE 1.tik Madrilgo HELBIDE 2.era. Aldaketaren data 2007ko urtarrilaren 1a izango zen. Halaber, planteamendu-idazkiak azaltzen du aipatutako proposamenarekin batera ZAEAk Madrilen eta Euskadin dauzkan ordezkaritzen ikuskatze-bulegoen

<i>Espedientea</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Ukitutako administrazioak</i>		<i>Kontzeptua</i>
24/2012	R14/2012	2012/10/29	Bizkaiko Foru Aldundia	Estatuko Administrazioa	Pertsona fisiko baten egoitza fiskala

txosten bana aurkeztu zirela, bata 2011ko urriaren 19koa eta bestea 2012ko otsailaren 24koa.

Txosten horien fotokopiak erantsi dira, beste agiri batzuekin batera, planteamendu-idazkian. Agiri horietan, proba batzuk jasotzen dira, ZAEAk bere jarrerarako oinarri gisa hartzen dituenak, IZEN-ABIZENAK delakoaren helbideari buruz, eta oinarri juridiko gisa Ekonomia Ituneko 43. artikuluan xedatutakoa aipatzen du:

"Bat. Ekonomia-itun honetan xedatutakoari begira, Euskadin bizi izaten diren pertsona fisikoek ohiko bizilekua Euskadin dutela pentsatzeko, ondoren aipatzen diren arauak aplikatuko dira, hurrenez hurren:

Lehenengoa. Lurralde horretan zergaren ezarraldiko egun gehien ematea, Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari dagokionez [...].

Lurralde jakin batean pertsona batek zenbat denbora eman duen zehazteko, aldi batez kanpoan izandako denbora hartuko da kontuan.

Kontrako frogarik ez dagoen artean, pertsona fisiko bat Euskadiko lurraldean dagoela pentsatuko da bere ohiko etxebizitza bertan baldin badu.

Bigarrena. Lurralde horretan baldin badauka bere eginkizunen zentro nagusia; leku hori zen den jakiteko, Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren ezarpen-oinarriaren zatirik handiena zein lurraldetan eskuratzen duen ikusiko da. Kasu horretarako, ez dira kontuan hartuko higigarrien kapitalak emandako errentak eta ondare-gehikuntzak, ez eta zerga-gardentasunaren araubidean –profesionala alde batera utzita– egotzitako oinarriak ere.

<i>Espedientea</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Ukitutako administrazioak</i>		<i>Kontzeptua</i>
24/2012	R14/2012	2012/10/29	Bizkaiko Foru Aldundia	Estatuko Administrazioa	Pertsona fisiko baten egoitza fiskala

Hirugarrena. Lurralde horretan baldin badu aitortutako bere azken bizilekua, Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren ondorioetarako.

[...]

Lau. Ekonomia-itun honen ondorioetarako, jarraian aipatuko direnek zerga-egoitza Euskadin dutela uste izango da.

a) Ohiko bizilekua Euskadin duten pertsona fisikoak"

Planteamendu-idazkiak baieztatzen du "Ituneko 43. artikuluko bederatzi idatz-zatian aipatzen den bi hilabeteko epea iraganda, Bizkaiko Foru Aldundiak ez diola erantzun egindako proposamenari. Arbitraje Batzordearen Erregelamenduko 13.1 artikuluari jarraituz, ulertu behar da, beraz, azken hori ez dagoela ados helbide fiskalaren aldaketarekin, ZAEAk proposatutako atzera-eraginarekin".

Planteamendu-idazkiak amaitzen du Arbitraje Batzordeari eskatuz deklaratu dezala IZEN-ABIZENAK delakoak helbide fiskala Madrilgo HELBIDE 2.ean eduki duela 2007ko urtarriletik gaur arte.

2. Gatazka hau izapidetzeko onartu baino lehen ere, 2012ko irailaren 13an, Arbitraje Batzordearen erregistroan Bizkaiko Foru Aldundiko Ogasun eta Finantza Saileko Koordinaziorako eta Laguntza Teknikorako zuzendariordearen idazki bat sartu zen, irailaren 12ko data zuena, non adierazten baitzuen 2012ko irailaren 12an Ogasun zuzendari nagusiak erabaki bat hartu zuela, eta haren bidez ebatzi zela Bizkaiko Foru Aldundiak gatazka honetan amore ematea "xede gertabidez desagertu delako, zeren eta Foru Aldundiak onartu baitu zergadunaren Zerga Administrazioaren Estatu Agentziak helbide fiskala dela-

<i>Espedientea</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Ukitutako administrazioak</i>		<i>Kontzeptua</i>
24/2012	R14/2012	2012/10/29	Bizkaiko Foru Aldundia	Estatuko Administrazioa	Pertsona fisiko baten egoitza fiskala

eta proposatutako zuzenketa". Horrenbestez, Arbitraje Batzordeari eskatzen dio deklarara dezala gatazka amaitu egin dela.

Idazkiarekin batera, ageri dira Bizkaiko Foru Aldundiko Ogasun zuzendari nagusiaren aipatutako erabakia eta Foru Ogasuneko Koordinaziorako eta Laguntza Teknikorako zuzendariordearen 2012ko irailaren 12ko proposamena, zeina akordio horretarako oinarri gisa hartu baitzen. Bigarren agiri horretan, intereseko honako oharpenak egiten dira: Arbitraje Batzordeak ez zion artean Bizkaiko Foru Aldundiari jakinarazi gatazka izapidetzeko onartua zuela, eta 2012ko uztailaren 26an Bizkaiko Foru Aldundiko Ogasun zuzendari nagusiak erabakia hartua zuen helbide fiskala zela-eta ZAEAk proposatutako zuzenketa onartzeko; izan ere, azken horrek gatazkaren xedea galarazi zuen eta bidea eman zuen Aldundiak amore eman zezan.

II. ZUZENBIDEKO OINARRIAK

1. Bizkaiko Foru Aldundiaren amore emateari dagokionez, Arbitraje Batzordeak onartu besterik ezin du egin; halere, horretarako ez da eragozpena amore ematearen figura ez dagoela jasota, prozedurari amaiera emateko modu gisa, ez Ekonomia Ituneko Arbitraje Batzordearen Erregelamenduan, abenduaren 28ko 1760/2007 Errege Dekretuz onetsitakoan, ez eta Herri Administrazioen Araubide Juridikoari eta Administrazio Prozedura Erkideari buruzko azaroaren 26ko 30/1992 Legean ere. Aurreko beste ebazpen batzuetan, nola baita abenduaren 22ko R 28/2011 ebazpena, 20/2010 espediente zenbakia duena, hurbileko beste formula bat erabili dugu, atzera egitearena, zeina jasota baitago 30/1992 Legeko 91.2 artikuluan; honakoa ezartzen du, hain zuzen ere: "Administrazioak bete-betean onartuko du atzera egitea edo uko egitea, eta amaitutzat emango du prozedura; hala ere, ez du prozedura amaitutzat emango, beste interesdunik aurkeztu bada eta, atzera egitea jakinarazi eta hamar egunetan, prozedura aurrera eramateko eskatzen badute interesdun

<i>Espedientea</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Ukitutako administrazioak</i>		<i>Kontzeptua</i>
24/2012	R14/2012	2012/10/29	Bizkaiko Foru Aldundia	Estatuko Administrazioa	Pertsona fisiko baten egoitza fiskala

horiek". Hor aipatzen genuen ezen, amore ematearen figuran ez bezala, atzera egiteak ez duela eskatzen organo administratiboak berariazko erabakia hartzea gaiaren edukiari buruz, nahiz eta horrek, agerikoa denez, ez dituen aldatzen ebazpenetik heldu diren ondorio materialak.

2. Prozedurari amaiera emateko erabakiaz aparte, aurreko zuzenbideko oinarrian adierazitakoaren bidetik, egokia da hemen gogoeta batzuk formulatzea gatazka hau planteatzea ekarri zuen prozedurari buruz. Planteamendu hau saihets zitezkeen baldin eta ZAEAk ezagutu izan bazuen hura aurkeztu baino lehen Bizkaiko Foru Aldundiaren jarrera bat zetorrela berarenarekin. Gatazka aurkezteko arrazoia izan zen ZAEA beldur zela –eta horretarako funtsen bat bazen– Ekonomia Ituneko 43. artikuluko Bederatzi idatz-zatian aurreikusitako bi hilabeteko epea iragatea jo zitekeela Aldundia helbide aldaketa dela-eta aurkeztutako proposamenaren kontra zegoela tazituki, eta, horrenbestez, epea iragate horrek ekar zezala hilabeteko epe bat hastea Ekonomia Ituneko Arbitraje Batzordeko Erregelamenduko 13.2 artikuluan ezarritako gatazka-prozedura aurkezteko.

Interpretazio horretarako bidea ematen du Ekonomia Ituneko Arbitraje Batzordeko Erregelamenduko 13.1 artikulua:

"Zergadunen zerga-helbideratzeen ondorioz sortzen diren desadostasunetan, Ekonomia Itunaren 43. artikuluko bederatzigarren paragrafoan aipatzen den bi hilabeteko epea bi administrazioen aldetik adostasunik izan gabe igarotzen delarik, orduan ez da beharrezko izango paragrafo honen lehenengo lerrokadan aipatzen den errekerimendua edo eskugabetasuneko aitorpena egitea, gatazka aurkeztu ahal izateko".

Azaldutako interpretazioak, eta harekin batera bi hilabeteko epearen laburrak, zaildu eta are eragotzi ere egin dezake helbide fiskalaren aldaketarako

<i>Espedientea</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Ukitutako administrazioak</i>		<i>Kontzeptua</i>
24/2012	R14/2012	2012/10/29	Bizkaiko Foru Aldundia	Estatuko Administrazioa	Pertsona fisiko baten egoitza fiskala

proposamenaren hartzaile den Administrazioak haren aurrean jarrera bat hartzea, baita argi samar dauden kasuetan ere, nola baita oraingo gatazkarena. Halaber, eragotzi edo zail dezake zenbait kasutan interesdunak helbide-aldaketaren prozeduran parte har dezan, nahiz eta batzuetan parte-hartze hori ezinbestekoa den. Kasu honetan ikusten da ezen, espedientetik ondorioztatzen denez, parte-hartze hori gertatu dela. Azken batez, aipatutako interpretaziotik heldu den egoerak bideraezin egiten du praktikan Ekonomia Ituneko 43. Bederatzi artikuluan laburki aipatzen den "adiskidetasunezko" prozedura, hartara arau horren xedea eragotziz.

Hala eta guztiz ere, aipatutako interpretazio hori Auzitegi Gorenak ezeztatu du, 2011ko irailaren 22ko (2429/2007 errekurtsua) eta 2012ko ekainaren 7ko (9/2011 errekurtsua) epaietan. Izan ere, berriki eman dugun irailaren 28ko R 11/2012 Ebazpenean –15/2009 espedientea– zabal azaldu dugu doktrina hori. Aipatutako bi epai horiek eman ziren honakoei jarraituz: Estatuaren eta Nafarroako Foru Komunitatearen arteko Hitzarmen Ekonomikoari –hitzarmen hori abenduaren 26ko 28/1990 Legearen bidez onetsi zen, baina uztailaren 15eko 35/2003 Legearen bidez testu berria eman zitzaion– eta bertako Arbitraje Batzordearen Erregelamenduari –martxoaren 24ko 353/2006 Errege Dekretuz onetsia–. Hala eta guztiz ere, haren doktrina guztiz aplikatzekoa da Euskadin aplikatzekoak diren arauetan, zeren eta guztiz bat baitatoz Nafarroakoekin; alde bakarra da Hitzarmeneko Arbitraje Batzordeko Erregelamenduan gatazka planteatzeko ezarri zen epea hamabost eguneko dela, hilabetekoa izan beharrean.

Laburbilduz, honakoa da Auzitegi Gorenaren epai hori: Lehenbizi, 2011ko irailaren 22ko epaiak, laugarren zuzenbideko oinarrian, ezartzen du Hitzarmen Ekonomikoko 43.5 artikulua (bat dator Ituneko 43. Bederatzi artikuluekin) eskatzen duen bi hilabeteko epearen urraketa ezin dela jo zuzenbidez deuseza izateko arrazoi gisa, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta

<i>Espedientea</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Ukitutako administrazioak</i>		<i>Kontzeptua</i>
24/2012	R14/2012	2012/10/29	Bizkaiko Foru Aldundia	Estatuko Administrazioa	Pertsona fisiko baten egoitza fiskala

Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legeko 62. artikuluan ezarritako terminoetan, zeren eta ez-betetze horrek eragin hori izateko, arau horretan aipatutako inguruabarretatik edozein gertatzeaz gainera, interesduna jarri beharko baitzen alegazioak aurkeztea edo defendatzea ezinezko gertatuko zitzaion egoera batean, indefentsioa eraginda.

Bestalde, 2012ko ekainaren 7ko epaiak, seigarren zuzenbideko oinarrian, ebazten du Arbitraje Batzordean gatazka aurkezteko ezarritako epea (hamabost egunekoa Nafarroako kasuan –bere Erregelamenduko 14.2 artikulua– eta hilabetekoa Euskadiren kasuan –Ekonomia Ituneko Arbitraje Batzordeko Erregelamenduko 13.2 artikulua– soilik gatazka positiboa aurkezteari dagokiola,

baina "ez duela zentzurik baieztatzea ezarrita dagoen 15 eguneko epea aplikatu behar denik, halaber, destino-aldaketako [sic; "helbide-aldaketako" esan behar luke] kasuetan, eta ez duela izaera preklusiborik, zeren eta 43.5 artikulua [Ituneko 43. Bederatzi artikuluekin bat datorrena] adiskidetasunezko prozedura bat aurreikusten baitu, eta prozedura hori arrakastarekin amaitzen ez bada, gaia Arbitraje Batzordera deribatu behar dela, erabaki dezan pertsona fisiko edo juridiko batek helbidea non duen. Nabarmendu beharra dago Erregelamenduak soilik aurreikusten duela Administrazioak erantzuteko daukan bi hilabeteko epea iragan denean ez dela jada beharrezkoa izango beste izapide bat gatazka planteatzeko; hori dela eta, helbide-aldaketarako eskariak berak bidea zabaltzen du, errefusatzeko baldin bada, Arbitraje Batzordean gatazka aurkezteko".

Epai horren ondorioa da 2011ko irailaren 22ko epaiaren arabera helbide-aldaketaren proposamenari erantzuteko epeak garrantzirik ez izatea bera

<i>Espedientea</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Ukitutako administrazioak</i>		<i>Kontzeptua</i>
24/2012	R14/2012	2012/10/29	Bizkaiko Foru Aldundia	Estatuko Administrazioa	Pertsona fisiko baten egoitza fiskala

"ulertu beharra dagoela gatazka aurkezteko epeari aplikatzekoa zaiola, eta, horrenbestez, ezerk ez duela eragozten helbide-aldaketaren proposamena errefusatzeko garaiz kanpoko ebazpen baten aurrean, Arbitraje Batzordera jo ahal izatea ezespren-erabakia ezagutu eta hamabost eguneko epean.

Era berean, ezerk ez du eragozten ezen, ezarritako epean erantzunik lortzen ez bada, aldaketa sustatu zuen Administrazioak egokitzat jotzen duenean, ulertu ahal izatea aldaketarako proposamena tazituki ezetsi dela, eta formalki gatazka sustatzea, isiltasun negatiboari buruzko araudi orokorra aplikatuz. Alderantziz, ordea, ezin da ziurgabetasun juridikorik aipatu ukitutako zergaduna dela eta, zeren eta ebazpenaren atzerapenaren ondorioak aipatu behar baitira, kasuan kasu, Administrazio eskudunak egiten duen likidazioari dagokionez".

Auzitegi Gorenak helbide-aldaketa sustatu duen Administrazioari ematen dion diskrezionalitatea fede onak mugatuta dago argiro, halako moduz non ezin izango baita aldaketa-proposamena ezetsi harik eta Administrazio interpelatuak hari buruzko behin betiko erabakia hartzen ez duen arte, Ituneko 43. Bederatzi artikuluan ezarritako adiskidetasunezko prozeduraren arabeko aukerak agortu ondoren.

Horren indarrez, Arbitraje Batzordeak

ERABAKI DU:

Lehena. Onartzea IZEN-ABIZENAK delakoaren (NAN: ----) helbide fiskala dela eta ZAEAk planteatutako gatazkan Bizkaiko Foru Aldundiaren amore ematea.

<i>Espedientea</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Ukitutako administrazioak</i>		<i>Kontzeptua</i>
24/2012	R14/2012	2012/10/29	Bizkaiko Foru Aldundia	Estatuko Administrazioa	Pertsona fisiko baten egoitza fiskala

Bigarrena. Agintzea jarduketak amaitu eta artxiba daitezela eta xede horretarako igorritako dokumentazio guztia itzul dadila.